

GERNIKA-LUMO / Liburutegia zelan erabili ikasi dute Seber Altubeko 300 ikaslek

Ikasleez gain, irakasleek ere bisita gidatuak hartu dituzte azaroaren 2tik 20ra bitartean.

O. CABELLO

Gernika-Lumoko udal liburutegia ezagutu eta zelan erabili ikasi dute Seber Altube ikastolako 300 ikaslek baino gehiagok. Horretarako, bisita gidatuak hartu dituzte bai ikasleek zein irakasleek, azaroaren 2tik 20ra bitartean.

"Jolasaren eta sormenaren bidez, era parte-hartzailean izan dute ikasleek liburutegia ezagutzeko aukera, liburutegiko arduradunek zehaztu dutenez. "Ikasleek bost gai zituzten eta horien artean gustukoena aukeratzen zuten. Behin gaia aukeratuta, horri buruzko informazioa bilatu behar zuten.

Horrela, liburutegiak zer-nolako baliabideak eskaintzen dituen ezagutu ahal izan dute ikasleek, "eta baliabide horiek erabiltzen ikasi.

Bisita gidatu horien bitartez, liburutegira joateko eta berau erabiltzeko ohitura piztu gura dute.